



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, TXOSTEN HAU DELA ETA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIOA (2006)

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2006 ekitaldiko kontuen fiskalizazioa egin du, epaitegi hau arautzen duen 1/1988 Legeari jarraituz. HKEEko osoko bilkurako kideen gehiengoak onartu du txostena.

Fiskalizazio lanean, 2006. urteari dagokionez, bi alderdi hauek aztertu dira: batetik, kontuak egitean aplikatutako kontabilitate printzipioak; eta, bestetik, administrazio jardueran lege arauak bete al diren.

Epaitegiak, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak aurkeztutako kontuei buruz, iritzi dio kontu horiek adierazten dutela, alderdi esanguratsu guztietan, 2006 ekitaldiko ekonomia jarduera.

Legea betetzearen atalean, organo fiskalizatzaileak aldeko iritzia du Eusko Jaurlaritzaren jardun orokorrari buruz, salbuespen hauek zehaztuta:

- Ekitaldirako onartutako aurrekontuetan ez dago sartuta diru sarrerren eta gastuen lurraldez lurraldeko sailkapena. Hartara, ez da bete 1/1994 Legegintza Dekretuko 57. artikulua.
- Obren administrazio kontratazioaz den bezainbatean, HKEEk aztertutako espedienteetan legeen urratze hauek aurkitu dira:
 - Hainbat gastu (guztira 1,1 milioi euro) publizitate eta lehia printzipioak errespetatu gabe esleitu dira. Izan ere, haien xedea zatikatu da; eta, horrela, saihestu egin da bakoitzak lehia publikora deitzeko mugak gainditzea.
 - Bi obra kontratutan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kontrako txostena emana zien aldaketak egin dira. Aldaketa horiek Gobernu Kontseiluak baliozkotu behar izan zituen, administrazio prozedura orotatik kanpora egin zirelako.
- Era berean, adierazi denez, Gobernuak 26,5 milioi euroren eragiketak baliozkotu ditu (aurreko paragrafoan aipatutako bi aldaketak barne), nahiz eta alde zuzenetik Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kontrako txostena emana zien (baita aurrez



adierazitako horri ere). Zenbateko horretatik, obren, horniduren eta laguntza teknikoen kontratuei dagozkie 25,4 milioi euro; eta diru laguntzei, 1,1 milioi.

- Ingurumena babesteko inbertsioak egitearren enpresei diru laguntzak emateko linea batean, eskatzaileei emandako puntu kopuruak ulertzea ahalbidetuko duen motibazio garbirik gabe onartu dira diru laguntzak.
- Hainbat sailetan, sailaren kudeaketari dagozkion lanak —hau da, Administrazioako bertako langileek egin beharreko lanak— egin dituzten 21 lagunen fakturak detektatu dira. Faktura horiek 536.000 euro dira, guztira.

«Barneko kontrol sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» atalean, Administrazioak hainbat arlotan (langileria, kontratuak, diru laguntzak, kontabilizazioa...) egindako jarduni dagokionez HKEEk hobetu edo zuzentzeko modukotzat jotzen dituen alderdiak sartu dira, adibidez: lanpostuen zerrenden edukia; ordaintzeke dauden hondarren erregistroa; laguntzak kontratatu eta esleitzearen alderdi formalak; gastuaren lurraldeka banatzeko irizpideak.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du emaitza arrunta, 2006an, nabarmen handitu dela (% 26) 2005aren aldean. Horri esker, ekitaldiko inbertsio garbia finantzatu da, eta erabilitako zorra 180 milioi euro baino gehiago murriztu da